

# AURKIBIDEA

## INDICE

### TOMO 7

I.	Osakidetza Taldea .....	1
	<i>Grupo Osakidetza</i>	
-	"Osakidetza – Servicio Vasco de Salud" Erakunde Publikoa .....	3
	<i>Ente Público "Osakidetza – Servicio Vasco de Salud"</i>	
-	"Osakidetza – Servicio Vasco de Salud" Erakunde Publikoaren Antolaketen Aurrekontuak .	133
	<i>Presupuestos de las Organizaciones del Ente Público "Osakidetza – Servicio Vasco de Salud"</i>	
-	Zuzendaritza Orokorra .....	137
	<i>Dirección General</i>	
-	Arabako Eskualdea .....	149
	<i>Comarca Araba</i>	
-	Larrialdia (Larrialdietako Unitateak) .....	159
	<i>Emergencias (Unidades Territoriales)</i>	
-	Santiago Ospitalea .....	169
	<i>Hospital Santiago</i>	
-	Txagorritxu Ospitalea .....	181
	<i>Hospital Txagorritxu</i>	
-	Deba Garaiko Ospitalea .....	193
	<i>Hospital Alto Deba</i>	
-	Arabako Ospitale Psikiatrikoa eta Ospitalez Kanpoko Osasun Mentala .....	203
	<i>Hospital Psiquiátrico y Salud Mental Extrahospitalaria de Araba</i>	
-	Lezako Ospitalea .....	213
	<i>Hospital Leza</i>	
-	Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdea .....	223
	<i>Comarca Gipuzkoa-Este</i>	
-	Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdea .....	235
	<i>Comarca Gipuzkoa- Oeste</i>	
-	Donostia Ospitalea .....	245
	<i>Hospital Donostia</i>	
-	Bidasoako Ospitalea .....	257
	<i>Hospital Bidasoa</i>	
-	Zumarragako Ospitalea .....	269
	<i>Hospital Zumarraga</i>	
-	Mendaroko Ospitalea .....	281
	<i>Hospital Mendaro</i>	
-	Gipuzkoako Ospitalez Kanpoko Osasun Mentala .....	291
	<i>Salud Mental Extrahospitalaria Gipuzkoa</i>	
-	Bilboko Eskualdea .....	301
	<i>Comarca Bilbao</i>	
-	Barrualdeko Eskualdea .....	313
	<i>Comarca Interior</i>	
-	Uribe-Kostako Eskualdea .....	325
	<i>Comarca Uribe-Kosta</i>	
-	Ezkerraldea-Enkartzioetako Eskualdea .....	335
	<i>Comarca Ezkerraldea-Enkarterri</i>	
-	Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroa .....	347
	<i>Centro Vasco de Transfusiones y Tejidos Humanos</i>	
-	Santa Marina Ospitalea .....	357
	<i>Hospital Santa Marina</i>	

-	Bermeoko Ospitalea .....	367
	<i>Hospital Bermeo</i>	
-	Zaldibarko Ospitalea .....	377
	<i>Hospital Zaldibar</i>	
-	Zamudioko Ospitalea.....	387
	<i>Hospital Zamudio</i>	
-	Gorlizko Ospitalea.....	397
	<i>Hospital Gorliz</i>	
-	Bizkaiko Ospitalez Kanpoko Osasun Mentala .....	407
	<i>Salud Mental Extrahospitalaria Bizkaia</i>	
-	Basurtuko Ospitalea .....	417
	<i>Hospital Basurto</i>	
-	Galdakaoko Ospitalea .....	429
	<i>Hospital Galdakao</i>	
-	San Eloy Ospitalea .....	441
	<i>Hospital San Eloy</i>	
-	Gurutzetako Ospitalea.....	451
	<i>Hospital Cruces</i>	
-	OSATEK, S.A. ....	463
-	Aurrekontu Bateratuak. Osakidetza Taldea .....	479
	<i>Presupuestos Consolidados. Grupo Osakidetza</i>	

2003



I. Osakidetza Taldea  
*Grupo Osakidetza*



2003



**“Osakidetza – Servicio Vasco de Salud” Erakunde Publikoa**  
***Ente Público “Osakidetza – Servicio Vasco de Salud”***



**OSAKIDETZA / SERVICIO VASCO DE SALUD****1. SARRERA**

OSAKIDETZA / SERVICIO VASCO DE SALUD zuzenbide pribatuko ente publikoa da, eta ekainaren 26an onartutako Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legeak sortu zuen.

Zerbitzu sanitarioen prestazioa du helburu, Osakidetzaren mende dauden zerbitzu sanitarioetako erakunde publikoen bidez.

Zerbitzu sanitarioen prestazio hori jardunbide instrumentala da, eta zera esan nahi du: pertsonen antolatu eta homologatutako baliabide bat eskaintzen zaiela prestazio sanitarioak izan ditzaten, beren osasun-egoera sustatu, zaindu eta berreskuratzeko.

**2. ENTITATEAREN JARDUERA OROKORRAK**

Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoak bere helburuak betetzeko, ondoren zehazten diren jarduerak eramango ditu aurrera bere erakundeen bitartez:

1. Zerbitzu sanitarioen eskaintza aurrera eramango du Euskal Autonomia Erkidegoan, lehen mailako eta espezializatutako asistentzia-prestazioen bitartez. Prestazio horiek betetzeko, kontratazio publikoa erabiliko du eta, era berean, parte hartuko du osasuna sustatzeko, gaixotasunak prebenitzeko, asistentzia sanitarioa eta errehabilitazioa emateko programa publikoetan. Halaber, parte hartu ahal izango du, alde zuzeneko ezarritako baldintzapean, asistentzia soziosanitarioko programetan.
2. Zerbitzu horietara datozen hiritarrei behar dituzten baldintzak eskainiko dizkie, beren eskubideez baliatu eta eginbeharrak betetzeko –eskubide eta betebeharrak instrumentala nahiz osagarriak– eta horretarako, informazio-mailaren hobekuntza iraunkorra bultzatuko du, batez ere, eta horrekin batera, atentzioaren pertsonalizatzea eta kalitatea.
3. Osasunaren zientzietako irakaskuntza bultzatuko du, hala nola horiekin lotutako ikerketa, azterketa eta zabalkuntza, betiere, Osasun Sailak ezarritako ardatz estrategiko eta programen arabera, eta unibertsitateekin eta gai honetan adituak diren gainerako erakundeekin ere arituko da lanean.
4. Osakidetzako pertsona sanitario eta ez-sanitarioak behar dituen ezagupen espezializatuen prestakuntza eta eguneratzea bultzatuko du, bai berea duen osasunaren arloan, bai kudeaketa eta administrazio sanitarioari dagokionean ere.
5. Bere baliabide sanitarioen garapena sustatuko du, bertako ekintza eta programen bidez edo lankidetzan beste erakunde batzuekin. Helburu bera duen beste edozein ekimen ere bultzatuko du, baldin eta ente publiko honetako Administrazio Kontseiluak hala erabakitzen badu.

**1. INTRODUCCIÓN**

OSAKIDETZA / SERVICIO VASCO DE SALUD, Ente Público de Derecho Privado, fue creado por la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi.

Su objetivo o finalidad es la provisión de servicios sanitarios a través de las Organizaciones Públicas de servicios sanitarios dependientes del mismo.

Se entenderá como provisión de Servicios Sanitarios la actividad de carácter instrumental por la que se ofrece a las personas un recurso organizado y homologado con el objeto de proporcionarles prestaciones sanitarias dirigidas a la promoción, preservación y restablecimiento de su estado de salud.

**2. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD**

En desarrollo de su objetivo, el Ente Público Osakidetza / Servicio Vasco de Salud perseguirá a través de sus Organizaciones las actividades que a continuación se enumeran:

1. EJECUTAR la provisión del Servicio Sanitario en la Comunidad Autónoma de Euskadi, mediante las prestaciones de Asistencia Primaria y Especializada que sean objeto de aseguramiento y contratación pública, así como mediante su participación en los Programas Públicos que se establezcan de promoción de la salud, prevención de enfermedades, asistencia sanitaria y rehabilitación. Asimismo podrán participar, en las condiciones que se establezcan, en programas de asistencia socio - sanitaria.
2. PROPORCIONAR a los Ciudadanos que acceden a sus servicios las condiciones necesarias para el pleno ejercicio de sus derechos y deberes de carácter instrumental o complementario, promoviendo especialmente la mejora continua de los niveles de información, la personalización en la atención y la calidad de la misma.
3. PROMOVER la docencia en Ciencias de la Salud, así como las actividades de investigación, estudio y divulgación relacionadas con las mismas, de acuerdo con las líneas estratégicas y programas que establezca el Departamento de Sanidad y con la colaboración que se establezca con Universidades y demás instituciones competentes en la materia.
4. PROMOVER la formación y actualización de los conocimientos especializados que requiere su personal sanitario y no sanitario, tanto en el campo específico de la salud como en los de la gestión y administración sanitarias.
5. PROMOCIONAR el desarrollo de sus recursos sanitarios a través de acciones y programas propios o en colaboración con otras instituciones, y cualquier otro fin relacionado con su objeto que se acuerde por el Consejo de Administración del Ente Público.

Jardunbide horiek burutzeko, Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzua ente publikoa beste era batera egituratu da. Alde batetik, erakunde zentral bat ondoko atribuzioekin: kontrola, koordinazio estrategikoa eta erabakitako kudeaketa-jardueraren sustapena eta gauzatea eta, bestetik, zerbitzu-erakundeak, hau da, prestazioa bere kargu hartuko duten zerbitzu sanitarioak, zeinek ekonomia, finantza eta kudeaketako autonomiaren printzipioaren arabera lan egingo baitute.

Para la realización de dichas Actividades el Ente Público Osakidetza / Servicio Vasco de Salud se estructura en una Organización Central, con atribuciones de CONTROL y COORDINACION estratégica, APOYO y EJECUCION de las actividades de gestión establecidas y 30 Organizaciones de Servicios (acuerdo del Consejo de Administración de 5 de julio por el que se actualiza y se da publicidad a la relación de organizaciones de servicio de Osakidetza) que realizan las actividades de provisión de servicios sanitarios, actuando bajo el principio de autonomía Económico – Financiera y de Gestión.

### 3. 2002 URTEKO EGINTZA NAGUSIAK

### 3. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 2002

#### ASISTENTZIA SANITARIOA

2002. urtean jarduteko programak hurrengo hauek izan dira:

#### Lehen Mailako Atentzioa

##### Lehen Mailako Atentzioa

Lehen Mailako kudeaketako egitura sendotu da Lehen Mailako Atentzioko Lau Unitate berri sortu dira. Lehen Mailako Atentzioko Unitateko buru hamabost plaza deitu dira, zeinetatik hamalau bete diren. Horrela kudeaketako egituraren garapenean lortu da LMAUen (Lehen Mailako Atentzioko Unitatea) %79 etan LMAUB (Lehen Mailako Atentzioko Unitateko Burura) izendatuta egotea.

Kudeaketa Klinikoko Kontratua (KKK) sendotzen jarraitu du, eskualdeko LMU eta gerentzien artean. 33 KKK berri sinatu dira bi aldeen artean; aurreko urtean baino %32 gehiago.

Osasun zentro baten prozesuen mapa definitu da, abiapuntua izango dena ISO 9002 kalitatearen kudeaketaren sistemen helmena zabaltzeko zentroaren jardura guztira, baita asistentzialera ere.

Lehen Mailako Atentzio hierarkizatzeko prozesuak aurrera egin du APD kupoko plazak EAPko plazak bihurtu dira, eta, batez ere, plaza berriak sortu dira, horrela mediku bakoitzari esleitutako OTI kopurua egokitu egin da. Horrela geratu da Lehen Mailako Atentzioaren plantillaren egitura:

Hierarkizazio-prozesua 2002/12/31n

#### ASISTENCIA SANITARIA

Los programas de actuación realizados durante el ejercicio 2002 se detallan a continuación:

#### Atención Primaria

##### Estructura y Herramienta de Gestión

Se ha consolidado la estructura de gestión en Atención Primaria creándose 4 nuevas Unidades de Atención Primaria (UAP). Se han convocado 15 plazas de jefe de unidad de Atención Primaria (JUAP), cubriéndose 14 de las mismas. De esta forma, en el desarrollo de la estructura de gestión se ha conseguido que el 79% de UAP (Unidad de Atención Primaria) tengan nombrado JUAP (Jefe de Unidad de Atención Primaria).

Se ha continuado la consolidación del contrato de gestión clínica (CGC) entre las gerencias de comarca y los JUAP. En concreto, se han firmado 33 CGC entre ambas partes; un 32 % más que el año anterior.

Se ha definido el mapa de procesos de un centro de salud lo que servirá como punto de partida para la ampliación del alcance de los sistemas de gestión de la calidad ISO 9002 a toda la actividad del centro, incluida la asistencial.

El proceso de jerarquización en Atención Primaria ha continuado su desarrollo con la transformación de plazas de cupo/APD a plazas de EAP y, sobre todo, con la creación de nuevas plazas que ha permitido adecuar el número de TIS asignadas a cada médico. La situación estructural de la plantilla de atención primaria queda actualmente como sigue:

Proceso de jerarquización a 31/12/2002

	EAP/Kupo Cupo/APD	%	LMT EAP	%	GUZTIRA TOTAL
Familiako medikuak Médicos de Familia	137	12,8	933	87,2	1.070
Pediatriak Pediatrias	29	11,3	227	88,7	256
Erizainak Enfermeras	61	5,2	1.108	94,8	1.169



Osasun Zentroen ordutegia zabaltzen jarraitu da, goizeko eta arratsaldeko ordutegiarekin lan egiten duten LMAU 57 izan arte.

Se ha continuado ampliando los horarios de apertura de los centros de salud, incrementando el número de centros de salud que funcionan en horarios de mañana y tarde hasta alcanzar 57 UAPs.

- **Jarduera asistentziala**

Lehen Mailako Atentzioaren maila izaten da sistema sanitarioan sartzeko atea. 2002. urteko jarduera-adierazleak eta joan den urtean lortutakoak oso antzekoak dira:

- **Actividad asistencial**

El nivel de atención primaria constituye la puerta de entrada al sistema sanitario. Los indicadores de actividad durante el año 2002 son muy similares a los obtenidos el pasado año:

	2001	2002ko aurreikuspena Estimación 2002
<b>FAMILIAKO MEDIKUNTZA MEDICINA DE FAMILIA</b>		
Zentroetako kontsultak Consultas Centros	7.257.314	7.350.000
Bisitak/eguneko/mediku Visitas/día	29,8	29,1
Minutuak/kontsultako Minutos/consulta	8,06	8,2
Etxeko bisitak Visitas domicilio	170.656	180.000
<b>PEDIATRIA PEDIATRIA</b>		
Zentroetako kontsultak Consultas Centros	1.325.528	1.350.000
Bisitak/eguneko Visitas/día	20,67	21,2
Minutuak/kontsultako Minutos/consulta	10,76	10,6
Etxeko bisitak Visitas domicilio	1.832	2.000
<b>ERIZAINZA ENFERMERIA</b>		
Zentroetako kontsultak Consultas Centro	6.513.240	6.500.000
Etxeko bisitak Visitas domicilio	421.299	420.000
Emaginaren bisitak Visitas Matrona	268.424	270.000
Emaginaren bisitak etxera erditu ondoren Visitas Matrona Puerperio domicilio	4.285	4.500
Gripearen immunizazioa Inmunizaciones Gripe	310.750	315.000
Beste immunizazio batzuk Otras Inmunizaciones	363.274	370.000

Hipertentsio arterialaren gaineko praktika klinikoaren gida egin eta aurkeztu da.

Gripearen aurkako txertaketa-kanpaina garatu da. 65 urtetik gorako biztanleriaren %65 era iritsi da; instituzionalizatutako biztanleriaren 65 urte edo gehiagokoaren %95,7 ra eta Lehen Mailako profesional sanitarioen %27,5 era.

## • Informazio sistema

2002 urtean zehar Osabide-3S ezartzen jarraitu da; Erkidegoko Lehen Mailako Zentroen sarean jarduera asistentzialaren kudeaketa integraturako sortutako informazio sistema. Honi esker neurri handi batean Osakidetza Zuzendaritza Orokorrak ezarritako helburuak lortzen jarraitu da Arlo Sanitarioko informazio sistemari dagokienez, nabarmentzekoak dira: pazienteko historia kliniko bakarra, maisu datutegi korporatibo asistentzialak... pazientearentzako prestazio sanitarioaren kalitatea hobetzen delarik.

Osabide-3S zabaltzeak Lehen Mailako sarean 2002ko hasieran 101 zentrori eragiten zion, gure sarean dauden 309etatik 165i (%53). Lehendik zeuden funtzionalitateei berriak gehitu zaizkie.

Dauden funtzionalitateak:

- Pazienteen fitxategia.
- Egiturazko baliabideen eta baliabide profesional eta materialen fitxategia.
- Hitzorduen agenda Lehen Mailakoan eta ospitalez kanpoko espezializatuan.
- Erizaintzako zainketen plana.
- Historio Klinikoa (Anamnesia, gertakariak, baldintzatzaile eta arazoak, preskripzioak, BBE, Derrigor Adierazi Beharreko Gaixotasunen (DABG) erregistroa, Monitore klinikoa).

Funtzionalitate berriak:

- Programatutako Jardueren Plangitzaren Moduluari dagozkion hobekuntzak (Xede-populazioa, PJP, Eskaintza, Jarduek).
- Historia klinikoaren txostena.
- Análisi klinikoen laborategiekiko integrazioaren eta konexioaren hastapena, zeina iristen baita gaur 3 laborategi eta 6 osasun zentrotara.
- Panelak. Pazientearen datu klinikoak modu ordenatuan bistartzeko sistema.

## • Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI)

Jarduera garatzen jarraitu da, eta ondokoa nabarmendu daiteke:

Xede-populazioa: 142.000 haur; PADIren prestazioak jasotzeko eskubide dute.

Gutxi gorabeherako estaldura: %67

Se ha elaborado y procedido a la presentación de la guía de práctica clínica sobre hipertensión arterial.

Se ha desarrollado la campaña de vacunación antigripal, hasta alcanzar coberturas del 65% entre la población de 65 años o más, 95,7% de la población institucionalizada de 65 años o más y 27,5% de los profesionales sanitarios de Atención Primaria.

## • Sistemas de Información

Durante el año 2002 se ha continuado con la implantación de Osabide-3S; sistema de información creado para la gestión integrada de la actividad asistencial en la red de centros de Atención Primaria de la Comunidad. Ello ha contribuido en gran manera a seguir alcanzando los objetivos establecidos por la Dirección General de Osakidetza en cuanto a los sistemas de información del Área Sanitaria, entre los que destacan: la Historia Clínica única por paciente, bases de datos maestros corporativas asistenciales... lo que se traduce en una mejora de la calidad en las prestaciones sanitarias para el paciente.

El despliegue en la Red de Atención Primaria de Osabide-3s afectaba a un total de 101 centros en el comienzo del año 2002 alcanzando a finales de año los 165 (53%) centros del total de 309 que existen en nuestra red. Se han añadido nuevas funcionalidades a las que ya existían previamente.

Funcionalidades existentes:

- Fichero de pacientes.
- Fichero de recursos estructurales, profesionales y medios.
- Agenda de citación en Primaria y Especializada extrahospitalaria.
- Plan de cuidados de Enfermería (PCE).
- Historia clínica (Anamnesis, episodios, condicionantes y problemas, prescripciones, IT's, registro EDO's, Monitor clínico).

Nuevas funcionalidades:

- Mejoras en cuanto al módulo de Planificación de Actividades Programadas (Poblaciones diana, PAPs, Oferta, Actividades)
- Informe de Historia Clínica.
- Inicio de la integración y conexión con los Laboratorios de Análisis Clínicos que alcanza en la actualidad a 3 laboratorios y 6 centros de salud.
- Paneles. Sistema de visualización de los datos clínicos del paciente de forma ordenada.

## • Plan de Asistencia Infantil Dental (PADI)

Se ha continuado con el desarrollo de la actividad, destacando:

Población diana: 142.000 niños con derecho a recibir la prestación del PADI.

Porcentaje aproximado de cobertura: 67%.

Atentzioa jaso duen populazioa: 95.000 haur

Población atendida: 95.000 niños

## Atentzio Espezializatua

### • Ospitaleko jarduera asistentziala

2002. urtean gure ospitaleetako jarduerak gora egin du: ingresu ospitalarioak %1,3 gehiago; atentitutako urgentziak %2,7 gehiago; erditze arloan %3,2 gehiago eta jarduera kirurgiko globalari eutsi egin zaio.

Ebaluazio sanitarioaren adierazleei dagokienez lehengo mailek bere horretan jarraitu dute (akutuen ospitaletan batez besteko sei egun, egonaldi ertain eta luzeko ospitaletan egun erdiko murriztea, deuseztatze kirurgikoaren indizea %2,1 eta operazio-gelen errendimendua %83,4).

## Atención Especializada

### • Actividad asistencial hospitalaria

La actividad desarrollada por los hospitales de Osakidetza durante el año 2002 ha mantenido una tendencia creciente, con un 1,3% más de ingresos hospitalarios, un 2,7% en la cifra de urgencias atendidas, un 3,2% en el área de partos y se ha mantenido la actividad quirúrgica global.

En cuanto a los indicadores de evaluación sanitaria se ha observado un mantenimiento de los niveles anteriores (estancia media de 6 días en hospitales de agudos y disminución de 0,5 días en hospitales de media y larga estancia, índice de cancelación quirúrgica del 2,1% y el rendimiento de quirófanos que alcanza la cifra de 83,4%).

Adierazleak Indicadores	2001	2002	Aldaketa %tan % Variación
Ingresuak Ingresos	212.302	215.004	1,3
Atentitutako urgentziak Urgencias Atendidas	843.902	866.735	2,7
Egindako kontsultak Consultas atendidas	3.302.519	3.304.055	0,0
Erditzeak Partos	15.443	15.936	3,2
Interbentzio kirurgikoak Intervenciones quirúrgicas	137.296	137.109	-0,1
Batez besteko egonaldia (akutuentzako ospitalak) Estancia media (hospital agudos)	5,97	6,09	0,12
Batez besteko egonaldia (egonaldi ertain eta luzeko ospitalea) Estancia media (hospital media y larga estancia)	23,2	22,7	-0,5
Zesareak Cesáreas	12,9	14,91	2,01
Deuseztatze kirurgikoa Cancelación quirúrgica	2,16	2,13	-0,03
Operazio-gelen errendimendua Rendimiento de quirófanos	82,6	83,4	0,8

Kirurgiako itxaronzerrendari dagokionez, 2002 urteko paziente-kopurua aurreikusitakoaren parametroen barruan izan da, eta lortu da gehieneko itxaron-denbora 6 hilabete baino gutxiagokoa izatea, eta batez besteko atzerapena 60 egunekoa.

Respecto a la lista de espera quirúrgica (LEQ) el número de pacientes ha evolucionado a lo largo del año 2002 dentro de los parámetros esperados consiguiendo el objetivo global de espera máxima inferior a 6 meses y una demora media menor de 60 días.

Adierazleak Indicadores	2001	2002	Aldaketa %tan % Variación
Batez besteko atzerapena (IZK) (egunetan) Demora media	53,67	56,00	4,3

Beste jarduera batzuei dagokienez

Respecto a otras actividades

Instalazio sanitarioetako arrisku mikrobiologikoak gutxitzeko neurriak aplikatzen jarraitu da, batez ere infekzio nosokomialak gutxitzeko.

Lan-talde askoren bitartez historia kliniko elektronikoaren proiektua (e-Osabide) garatzen jarritu da.

Lan-taldeak garatzen ari dira laborategi klinikoen katalogo korporatiboak adosteko.

Informazioaren eta dokumentazio klinikoaren isilpekotasuna ziurtatzeko, bigarren gomendio-eskuliburua berrikusi eta landu da.

Profesionalen adostasun-talde bati esker, haurduntzaren bukaeran fetuak ipurdiz aurrerako aurkezpena duenean, beharrezkoa den zesarrea egiteko gomendioak jasotzen dituen gida bat egin da.

Prebalentzia handiko prozesuetako –miokardioko infartu akutua, istripu zerebrobaskular akutua eta zainketa aringarriak- plan asistentziala prestatzen jardun duten lan-taldeetan parte hartu da.

## • Ospitalizazioko alternatiben programa

2002. urtean zehar ohiko ospitalizazioaren alternatiben unitateetako hazkundeak orokorrean gora egin du.

Konplexutasun handiko pazienteak –egoera terminalean dauden pazienteak edo zainketa aringarrietakoak- atenditzen dituen "Etxeko ospitalizazioko programa" sendotu egin da. Errealitate hori batez besteko etxeko egonaldia eboluzioan ikusten da: 2001eko egonaldia 15 eguneko izatetik 2002an 17 eguneko izatera pasatu da, eta heriotza-tasa %6,5etik %10era pasatu da.

Se ha continuado con las medidas a minimizar los riesgos microbiológicos en las instalaciones sanitarias insistiendo en las medidas para disminuir la infección nosocomial.

Se ha continuado desarrollando a través de numerosos grupos de trabajo el proyecto de historia clínica electrónica (e-OSABIDE).

Se están desarrollando grupos de trabajo para consensuar los catálogos corporativos de los laboratorios clínicos.

Se ha revisado y elaborado el segundo manual de recomendaciones para garantizar la confidencialidad de la información y documentación clínica.

Se ha elaborado a través de un grupo de consenso una Guía con las recomendaciones para la indicación de cesárea en el parto de nalgas a término.

Se ha participado en los diversos grupos de trabajo destinados a la elaboración de planes asistenciales en procesos de alta prevalencia tales como el infarto agudo de miocardio, accidentes cerebrovasculares agudos y cuidados paliativos.

## • Programa de alternativas a la hospitalización

A lo largo del año 2002 ha continuado el crecimiento de la actividad en el global de las unidades de alternativas a la hospitalización tradicional.

Se ha consolidado el "Programa de hospitalización a domicilio", que atiende a pacientes de mayor complejidad, fundamentalmente pacientes en situación terminal o para cuidados paliativos, tal como se puede ver en la evolución de la estancia media domiciliar que ha pasado de 15 días en el 2001 a 17 días en el 2002, y en el porcentaje de mortalidad que ha aumentado del 6,5% al 10%.

Adierazleak Indicadores	2001	2002	% Aldaketa Variación %
Etxeko Ospitalizazioa (ingresuak) Hospitalización a domicilio (Ingresos)	4.675	4.392	-6,1
Eguneko Ospitale medikoa (ingresuak) Hospital de día médico (Ingresos)	120.545	123.230	2,2
KHAko interbentzioak Intervenciones CMA	29.708	31.370	5,6
Egonaldi Laburreko Unitateko ingresuak Ingresos en Unidad de corta estancia	13.143	14.162	7,8
Zainketa Aringarrietako kontsultak Consultas de cuidados paliativos	4.625	5.808	25,6

## • Osasun Mentala

Donostia eta Santiago ospitaleetan haurrentzako psikiatriako unitateak ireki dira.

Ostatu-beharretako Plana egin da, eta ospitalez kanpoko zentroetan atenditutako pazienteei lehenengo gogobetetasun-inkesta egin zaie.

## • Salud Mental

Se ha producido la apertura de unidades de psiquiatría infantil en los hospitales Donostia y Santiago.

Se ha elaborado el Plan de necesidades de alojamiento y se ha realizado la primera encuesta de satisfacción a pacientes atendidos en los dispositivos psiquiátricos extrahospitalarios.

Adierazleak/Ospitalez Kanpokoak Indicadores / Extrahospitalarios	2001	2002	% 02/01
Lehenengo kontsulta Primera Consulta	12.270	17.491	1,3
Berriz hastea Reinicio	7.604	8.222	8,1
Pazienteak Pacientes	66.959	67.152	0,3
Kontsultak guztira Total Consultas	618.082	617.452	-0,1

Adierazleak /Akutuentzako Ospitaleak Indicadores / Hospitales Agudos	2001	2002	% 02/01
Oheak Camas	246	246	--
Ingresuak Ingresos	5.241	5.282	0,8
Atenditutako urgentiak Urgencias Atendidas	11.843	12.662	6,9
Batez besteko egonaldia Estancia Media	15,32	15,26	-0,06

Adierazleak / Egonaldi Ertaineko Ospitalea Indicadores / Hospital Media Estancia	2001	2002	% 02/01
Oheak Camas	195	188	-3,6
Ingresuak Ingresos	778	797	2,4
Batez besteko egonaldia Estancia Media	79,06	87,43	8,4

## • Transplanteetako Programa

Gehikuntza nabaria izan da, bai organo eta ehunen donazioaren arloan, bai transplanteenean.

## • Programa de Trasplantes

Se ha observado un notable incremento tanto en el ámbito de la donación como en el de los trasplantes de órganos y tejidos.

Adierazleak Indicadores	2001	2002	Aldaketa% %variación
Giltzurruneko transplanteak Trasplantes renales	108	130	20,3
Gibeleko transplanteak Trasplantes hepáticos	61	55	-8,1

## • Titietako Minbizia Goiz Detektatzeko Programa (TMGDP)

EAEko hiru osasun-barrutietan egiten jarraitu dugu TMGDPa, eta helburuen arabera emaitzak lortu ditugu.

## • Programa de Detección Precoz del Cáncer de Mama. (PDPCM)

Se ha continuado realizando el PDPCM en las tres Áreas Sanitarias de la CAE con resultados adecuados a objetivos.

Bizkaiko eremu sanitarioko programaren bigarren itzulia egin da, eta adierazleen helburuetara heldu eta gaintu egin dira (detekzio-tasa, tumore txikien tasa eta erantzuteko denborak; parte-hartzea, ordea, helburuak baino zertxobait beheraxeago dago). Bizkaiko 5 unitateetan hirugarren buelta jarri da abian.

TMGDPko hirugarren itzulia ebaluatu da Araba eta Deba Garaiko eskualdeetan, eta emaitzek alde handiz gaintu dituzte adierazle guztiak (parte-hartzea, detekzio-tasa, tumore txikien tasa eta erantzuteko denbora). Bi eskualde sanitario horietan laugarren itzulia abian jarri da.

Gipuzkoako lurraldean Programaren hirugarren itzulia osatu da.

TMGDPko ebaluazioa egin da, eta orokorrean pazientearen gogobetetasuna %95,6 da hautapen-fasean, eta %97 ospitaleko tratamenduaren fasean.

## • HIESA Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Plana

### Prebentzioaren arloan

Droga-erabiltzaileentzako prebentzio-programek aurrera egin dute botiketan eta GKEetan.

EAEko batxillerreko ikastetxeetako nerabeei prebentzio-programa eskaini zaie.

Udan, populazio osoari zuzenduta, hiesa prebenitzeko kanpaina bat burutu da.

### Asistentziaren arloan

Ospitaleetako kontsulta espezifikoetan eutsi egiten zaio pertsona seropositiboen atentzioari.

### Gizarte alderdiak

Haur seropositiboak Euskadiko ikastetxeetan eskolaratzeko programak aurrera egin du.

## • Informazio-sistemak

Hainbat urtetarako e-OSABIDE proiektuaren garapenarekin jarraitzea. Helburua egungo ospitaleetako Informazio-sistemaren berringeniaritza da, Informazio Sanitarioko Sistema Korporatibo bat lortzeko oinarria izan dadin, betiere Osakidetzako beharrei egokituta inguru teknologiko, homogeen eta tinko batean,

Ekitaldi honetan zehar proiektuaren garapenak aurrera egin du, eta, besteak beste, hauek dira jarduerarik nabarmenenak:

Basurtuko Ospitaleari egokitutako informazio-migrazioko prozedurak aztertu eta eratzea.

Sarbide-kontrolako modulua aztertu eta eratzea.

Lanpostua pertsonalizatzeko modulua aztertu eta eratzea.

Sistemaren Kontu-ikuskaritzako Erregistroa aztertu eta eratzea.

Antolaketa-egituraren Modulua aztertu eta eratzea.

Se ha evaluado la 2. vuelta del Programa en el Area Sanitaria de Bizkaia, alcanzando y mejorando los indicadores (tasa de detección, tasa de tumores mínimos y tiempos de respuesta, mientras que la participación se encuentra ligeramente por debajo de objetivos) y se ha puesto en marcha la 3. vuelta en las 5 Unidades de Bizkaia.

Se ha evaluado la 3. vuelta del PDPCM en las Comarcas Araba y Alto Deba con resultados que mejoran ampliamente los objetivos en todos los indicadores (participación, tasa de detección, tasa de tumores mínimos y tiempos de respuesta) y se ha puesto en marcha la 4. vuelta en ambas Comarcas Sanitarias.

Se ha completado la 3. vuelta del Programa en el Territorio de Gipuzkoa.

Se ha llevado a cabo la evaluación del PDPCM con resultados de satisfacción global del paciente del 95,6% en la fase de screening y del 97% en la fase de tratamiento hospitalario.

## • Plan de Prevención y Control del SIDA

### En el campo de la prevención

Se ha continuado con los programas de prevención dirigidos a usuarios de drogas en farmacias y ONGs.

Se ha impartido el programa de prevención dirigido a adolescentes en centros escolares de bachiller de la C.A.E.

Se ha realizado una campaña de prevención del SIDA en verano dirigida a la población general.

### En el campo de la asistencia

Se mantiene la atención a las personas seropositivas en las consultas específicas de los hospitales.

### Aspectos sociales

Se ha continuado con el programa de escolarización de niños seropositivos en los centros escolares de Euskadi.

## • Sistemas de Información

Continuar el desarrollo de e-OSABIDE, proyecto plurianual cuyo objetivo es la reingeniería del actual Sistema de Información Hospitalario, como base para conseguir un sistema de información sanitaria Corporativo sobre un entorno tecnológico homogéneo, sólido y adecuado a las necesidades de Osakidetza.

A lo largo del presente ejercicio, ha continuado la evolución del proyecto destacando entre otros los siguientes hitos:

Análisis y construcción de los procedimientos de migración de información, adecuados al Hospital Basurto.

Análisis y construcción del Módulo de Control de Accesos.

Análisis y construcción del Módulo de personalización del puesto de trabajo.

Análisis y construcción del Registro de Auditoría del Sistema.

Análisis y construcción del Módulo de Estructura Organizativa.

Erizaintzako Oinarrizko Postua eratzea.

Artxiboa Kudeatzeko Oinarrizko Modulua eratzea.

## • Kalitatea

### 2002-2006 aldiko Kalitate-plana

2002-2006 aldirako Kalitate-plan bat egin da, hobekuntzako estrategietako identifikazioa, ebaluazioaren adierazleak eta helburuak adierazten dituena.

### EFQM ereduaren ezarri da

Etengabeko Prestakuntzako Programan dauden jarduerak egin dira. Kalitatearen atalean EFQM Moduluar dagokionez honako moduluak sartzen zituen:

- Kalitate osoko oinarrizko ikastaroa.
- Autoebaluazioarako prestakuntza, 2000 bikaintasun-ereduaren bidez.
- Prozesuen kudeaketa.
- Kalitateko tresnak eta arazoaren konponketa.
- Prestakuntza/ekintza-programa 5S ezartzeko.
- "Bezeroen hitza".

2002. urtean Euskaliteko Ebaluatzaileen Elkarteak/Kalitatea Sustatzeko Eusko Fundazioak aurrekoan baino Osakidetzako 22 profesional gehiago izan ditu; horren ondorioz Osakidetzak gaur egun Euskalitek akreditutako 68 ebaluatzaile ditu.

Lau ospitale kanpoko ebaluazioa eskatzeko memoria egin dute, Eusko Jaurlaritzako aitopeneko zilarrezko Qa eta urrezko Qa lortzearen. Halaber, ospitale bat eta Lehen Mailako Asistentziako bi eskualde beren memoria prestatzen hasi dira, 2003an Euskaliteko kanpoko ebaluaketa eskatzeko. Dagoeneko Euskaliteko Bikaintasuneko Konpromisoko Diploma duten beste 8 erakunde (5 ospitale, Osasun Mentaleko erakunde bat, goitekologia handiko enpresa bat eta ospitale bateko Kudeaketa Klinikoko Unitate bat) zenbait arlotan lan egiten ari dira, eta datozen bi urteetan kanpoko ebaluaketa izateko prestatuko dira.

2002ko laugarren hiruhilekoan EFQM Ereduaren arabera diharduten Osakidetzako 30 zerbitzu-erakundeetako autoebaluazioaren prozesu orokorra hasi da.

Akutuentzako ospitaleetan Prozesuen Kudeaketa ezartzeko, liburuxka bat prestatzen hasi da, eta baita ere, 5S autoimplantatzeko eskuliburu bat.

### ISO ziurtagina

Lehen Mailako Asistentziako ISO ziurtaginaren proiektuak aurrera egin du, eta dagoeneko 2002an 30 osasun-zentrotan ziurtagina daukate (ziurtagina lortu dezaketen zentro guztietatik %22 da, zeinak Lehen Mailako Asistentziako eskualde guztietakoak baitira).

Construcción del Puesto Básico de Enfermería.

Construcción de Módulo Básico de Gestión de Archivo.

## • Calidad

### Plan de Calidad 2002-2006

Se ha elaborado un Plan de Calidad para el período 2002-2006, con identificación de estrategias de mejora, indicadores de evaluación y objetivos.

### Implantación del Modelo EFQM

Se han realizado las actividades incluidas en el Programa de Formación Continuada, que en su apartado de Calidad y en referencia al Modelo EFQM incluía los siguientes módulos:

- Curso básico de calidad total.
- Formación para la autoevaluación mediante el modelo de excelencia 2000.
- Gestión de procesos.
- Herramientas de calidad y resolución de problemas.
- Programa de formación/acción para la implantación de 5S.
- La "voz del cliente".

Se ha incorporado durante el 2002 al Club de Evaluadores de Euskalit/Fundación Vasca para el Fomento de la Calidad a 22 profesionales de Osakidetzak, con lo que en el momento actual Osakidetzak dispone de un total de 68 evaluadores acreditados por Euskalit.

Se ha elaborado por parte de 4 Hospitales memorias para la solicitud de evaluación externa con vistas a la obtención de los reconocimientos Q Plata y Q Oro del Gobierno Vasco. Así mismo se han iniciado los trabajos de preparación de su Memoria por parte de 1 Hospital y dos Comarcas de Atención Primaria con el objetivo de solicitar la evaluación externa de Euskalit durante el año 2003. Otras 8 Organizaciones (5 Hospitales, 1 organización de Salud Mental, 1 empresa de alta tecnología y 1 Unidad de Gestión Clínica de un Hospital), que tienen ya el Diploma de Compromiso con la Excelencia de Euskalit, están trabajando en distintas áreas y tienen el objetivo de prepararse igualmente para evaluación externa en los próximos dos años.

En el cuarto trimestre de 2002 se ha iniciado el cuarto proceso general de autoevaluación de las 30 organizaciones de servicios de Osakidetzak con el Modelo de EFQM.

Se ha iniciado la preparación de un manual para la implantación de la Gestión de Procesos en los Hospitales de Agudos; así como un manual de autoimplantación de 5S.

### Certificación ISO

El Proyecto de Certificación ISO en Atención Primaria, ha avanzado siendo ya 30 el número de Centros de Salud certificados en el 2002 (el 22% del total de Centros certificables, los cuales pertenecen al 100% de las Comarcas de Atención Primaria).

Atentzio Espezializatuan hauexek lortu dute 2002an lehenengo ISO ziurtapena: Donostia Ospitalea (Laborategi bateratua 17025 akreditazioaren bitartez), Santa Marina Ospitalea (Artxiboak, Laborategiak, Erradiodiagnostikoa eta Farmazia), Gurutzetako Ospitalea (Zerbitzu Orokorrak), Santiago Ospitalea (sukaldea) eta Osatek. Gaur egun, Osakidetzako 18 ospitaleetatik 9k, %50ek, ISO ziurtapena dute beren jarduerako zenbait alorretan.

ISO ziurtapena zabaltzeko proiektu bat ezartzea Ospitaleetako Zerbitzu Orokorretan (Laborategiak, Erradiodiagnostikoa, Farmazia, Kudeaketa Sanitarioko Unitateak, Administrazioetako Zerbitzu Orokorrak eta Zerbitzu Okor Operatiboak. Proiektu horrekin ospitaleetako %100ek bat egin dute, eta ziurtapena 2003ko lehenengo hiruhilekoan lortuko dela aurreikusten da, esandako arlo guztietan edo zenbaitetan. Halaber, ISO Ziurtapenari buruzko Prestakuntzako Programa bat garatu da aurreko proiektuari sostengua emateko, ondorengo moduluen arabera:

Kalitatearen kudeaketa-sistema 2000 urteko ISO 9000 arauaren arabera.

Kalitatearen sistemetako auditoria 2000ko ISO 9000 arauaren arabera.

## Antzemandako kalitatea

Gogobetetasun-inkestak burutu eta azterketa pilotuak egin ondoren, Etxeko Ospitalizazio eta Asistentzia Psikiatrikoko kontsultetako alorretan gogobetetasun-inkesta korporatiboak egin dira lehenengo aldiz. Inkesta berri horiekin dagoeneko 10 inkesta dira guztira; horietako batzuk urtero egiten dira, eta beste batzuk bi edo hiru urtean behin.

2002 urtean 8 gogobetetasun-inkesta korporatibo egin dira, eta horietako 5en emaitza orokorrak sartzen dira.

En Atención Especializada consiguen por primera vez la Certificación ISO en 2002: Hospital Donostia (Laboratorio unificado mediante acreditación 17025), Hospital Santa Marina (Archivos, Laboratorios, Radiodiagnóstico y Farmacia), Hospital Cruces (Servicios Generales), Hospital Santiago (Cocina) y Osatek. De modo que en el momento actual un total de 9 de los 18 Hospitales de Osakidetza, un 50%; tienen certificadas según la Norma ISO diferentes áreas de su actividad.

Puesta en marcha de un proyecto de extensión de la certificación ISO en los Servicios Generales de los Hospitales (Laboratorios, Radiodiagnósticos, Farmacia, Unidades de Gestión Sanitaria, Servicios Generales administrativos y Servicios Generales operativos). A este proyecto se han incorporado el 100% de los hospitales, estando prevista la certificación en el primer semestre de 2003 de todos los hospitales en todas o algunas de las áreas enumeradas. Así mismo se ha desarrollado un Programa de Formación en Certificado ISO para dar soporte al proyecto anterior con los siguientes módulos:

Sistema de gestión de la calidad según la Norma ISO 9000 del año 2000.

Auditorías de sistemas de calidad según ISO 9000:2000

## Calidad Percibida

Se han realizado por primera vez de las encuestas corporativas de satisfacción a clientes en los ámbitos de Hospitalización a Domicilio y consultas de Asistencia Psiquiátrica, tras haber efectuado el diseño de las mismas y los estudios pilotos correspondientes. Con estas nuevas encuestas son ya 10, el número total de encuestas, algunas de las cuales se efectúan anualmente y otras con carácter bienal o trienal.

Realización durante el año 2002 de 8 encuestas corporativas de satisfacción de pacientes, de las que se incluyen los datos ya existentes de satisfacción global para 5 de ellas:

Inkestak Encuestas	% gogobetetasun orokorra % Satisfacción Global
Akutuentzako ospitalizazioa Hospitalización Agudos	97
Ospitaleko urgentziak Urgencias Hospitalarias	92
Lehen Mailako Atentzioko kontsultak Consultas de Atención Primaria	95
Etxeko ospitalizazioa Hospitalización a Domicilio	98
Asistentzia Psikiatrikoko kontsultak Consultas de Asistencia Psiquiátrica	94

Bezeroentzako gogobetetasun-inkestak egiteko prozedurari buruzko eskuliburu korporatibo bat prestatu da.

Osakidetzako pazienteen kezak, erreklamazioak eta eskerrak jasotzen dituen informazio-sistema sendotu da. Datu horiekin lau hilabetez behin txosten bat egiten da, eta 2002ko lehenengo lau hileko emaitzarik esanguratsuenak honako hauek dira:

Preparación de un Manual corporativo sobre el procedimiento de las encuestas de satisfacción de clientes.

Consolidación del Sistema de Información de quejas, reclamaciones y agradecimientos de pacientes de Osakidetza, del cual se elabora un informe cuatrimestral. Los resultados más significativos del primer cuatrimestre del 2002 son los siguientes:



- Kexak guztira: 3.959.
- Erreklamazioak guztira: 4.155 (urtarrila-apirila epeko datua)
- <30 egunetan konpondutako erreklamazioak: %88,13
- Konponketaren batez besteko denbora: 12,76 egun.
- Erreklamazioak egiteko arrazoirik ohikoenak: antolaketa / koordinazioa (%30), itxaronzerrrenda / atzerapena (%28), asistentzia sanitarioa (%19).
- N. total de quejas 3.959.
- N. total de reclamaciones 4.155 (dato de enero a abril).
- % Resueltas en menos de 30 días: 88,13.
- Demora media de resolución 12,76 días.
- Causas más frecuentes de las reclamaciones: organización/koordinación (30%), listas de espera/demoras (28%), asistencia sanitaria (19%).

## Kalitate teknikoa

Informazio Sanitarioko Sistemaz tratatzen duen 1999-2001 arautegiari buruzko eta atentzio espezializatuen informazio sistemaren adierazleen homogeneizazioari buruzko eskuliburuak argitaratu dira. Eta beste liburu bat bidean dago, hain zuzen, haurduntzaren bukaeran fetu bakar batek ipurdiz aurrerako aurkezpena duenean, beharrezkoa den zesarea egiteko gomendioak jasotzen dituen gida bat egin da.

Akutuen eta egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan infekzio nosokomialaren urteko prebalentziaren azterketa egin da EPINE metodologiaren arabera. Bestalde, infekzio nosokomialaren intzidentzia azterketa egin da akutuen ospitaleetan, kritikoen unitateetan eta ondoko prozedura kirurgikoetan: belauneko lehenengo protesi-ezarpena, prostatektomia irekia eta koloneko aukerako kirurgia.

Erizaintzako atentzioko prozesua ebaluatu da Zaineri programa informatikoaren bitartez. Lehen Mailako Atentziarako eta Atentzio Espezializaturako ebidentzian oinarritutako Medikuntzako praktikari buruzko prestakuntzako modulu batzuk eskaini dira.

## ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

Programaren eginkizun nagusia da prestakuntza bideratzea eta profesionalen garapena bultzatzea, aldaketa demografiko, epidemiologiko, teknologiko eta sozialei aurre egiteko. Izan ere, aldaketa horiek eragina izango dute bezeroen beharretan, eta ondorioz, baita enpresaren egitura eta kulturaren ere. Hori guztia Osasuna Zainduz planaren estrategietan jasorik dago.

## Calidad Técnica

Se han editado Manuales sobre la Normativa 1999-2001 sobre Sistemas de Información Sanitaria y sobre homogeneización de los indicadores del sistema de información de atención especializada. Se encuentra en proceso de elaboración una "Guía de recomendaciones de actuación en el parto de un embarazo a término con feto único en presentación de nalgas".

Se han realizado el estudio de prevalencia anual de infección nosocomial según la metodología EPINE en los hospitales de agudos y de media-larga estancia y estudios de incidencia de infección nosocomial en los hospitales de agudos, en unidades de críticos, y en los siguientes procedimientos quirúrgicos: primer implante de prótesis de rodilla, prostatectomía abierta y cirugía electiva de colon.

Se ha evaluado el proceso de atención de enfermería a través del programa informático Zaineri. Se han impartido diversos módulos de formación sobre práctica de la Medicina basada en la evidencia para Atención Primaria y Atención Especializada.

## FORMACIÓN CONTINUADA

La función básica del programa es la de facilitar la Formación y contribuir al desarrollo de los profesionales para enfrentarse a los cambios demográficos, epidemiológicos, tecnológicos y sociales que irán produciendo cambios en las necesidades de los clientes y, consecuentemente, en la estructura y cultura de la empresa tal y como se establece en las estrategias de Osasuna Zainduz.

PRESTAKUNTZA ÁREAS DE ACTIVIDAD	Jarduera-kopurua N. Actividades	Beraratuen kopurua N. Asistentes	Ordu-kopurua N. Horas
Kalitatea eta Kudeaketa Sanitarioa Formación en Calidad y Gestión Sanitaria	50	1.350	1.050
Arlo klinikoak Formación en áreas clínicas	101	2.147	1.414
Komunikazio-trebetasunak Formación habilidades de comunicación	12	350	252
Mikroinformatika Formación en microinformática	112	1.629	2.352
GUZTIRA TOTAL	275	5.476	5.068

Prestakuntzako Plana ebaluatzeke adierazle hauek erabili dira:

Egindako jardueren % = Egindako jarduerak / programatutako jarduerak

Los indicadores utilizados para la evaluación del Plan de formación son los siguientes:

% de actividades realizadas = N. actividades realizadas / N. actividades programadas

Asistentzien % = % 80tik gorako asistentzia izan duten bertaratuen kp. / jarduera bakoitzean aurreikusitako bertaratuen kp.

Adierazle bakoitzeko estandarra %80 da.

## GIZA BALIABIDEAK

### • Enplegu-sorkuntzako finkapena urteko lanaldia murrizteagatik.

2000 urterako Osakidetza lan-baldintzeko Hitzarmenaren "Lanari dagokionez, Neurriak eta 35 orduko lanaldiari buruzko EAEko Administrazio Orokorreko Negoziazio-mahai Orokorreko Hitzarmenaren Garapena" eranskinak ezartzen duenaren arabera, urteko lanaldiaren murrizketa dela-eta, Osakidetza lanaldi berria ezarri zuen, eta horrek 2001 urtean plantilako 700 lanpostu berri eta behin-behineko 118 sortzea ekarri zuen.

2001eko urtean plantilako 500 lanpostu eta behin-behineko 118 bete ziren; 2002 urtean gainerako 200 lanpostu onartu eta bete egin dira.

### • Hizkuntz Normalizazioa

Euskararen erabilera normalizatzeko plana Osakidetza-SVSn, EAEko Administrazioa normalizatzeko prozesu orokorraren barruan dago. Plan hori euskal herritarren borondatea adierazten duen arautegi juridiko espezifiko batek bultzatzen du. Ahalegin horren zehaztapen legala Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legea da.

8/1997 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarenak, 28 artikulua bosgarren arau komunean ondokoa dio: "Euskadiko Autonomia Elkarteko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko arautegian xedatutakoarekin bat etorritik, Osakidetza-SVS ente publikoak plan berezia ezarriko du, hizkuntza politikari buruz Autonomia Erkidegoko organo eskumendunak xedatzen dituen norabideen arabera: plan horretan zehaztuko dira enteen pertsonalarentzat aplikagarri diren hizkuntza helburuak eta helburuak ondo betetzeko hartu beharreko neurriak".

Arautegian xedatutakoa aplikatzeko, Osakidetza, 2002ko ekitaldian zehar, Osasun Saileko mahai sektorialean ordezkaturik dauden sindikatuei aurkeztutako Dekretuaren zirriborroan oinarriturik, dokumentu berri bat egin du, alegazioak aurkezteko epea igaro ondoren. Dokumentu hori, memento honetan administrazio-tramitazioan dago.

### • Lan-eskaintza Publikoa

% de asistencia = N. De asistentes que superan el 80% de asistencia al curso / N. Asistentes previstos a cada actividad

El estándar es de 80% para cada uno de los indicadores.

## RECURSOS HUMANOS

### • Consolidación de la creación de empleo por efecto de la reducción de jornada anual

Respecto de la creación de empleo por efecto de la reducción de jornada anual, la aplicación de la nueva jornada en el ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud supuso en el año 2001 la creación de 700 puestos de plantilla y 118 de contratación temporal, en base a lo que establece el Anexo "Desarrollo del Acuerdo de la Mesa General de Negociación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi sobre la Jornada de las 35 horas y Medidas en relación al Empleo" del Acuerdo de condiciones de trabajo de Osakidetza-Servicio vasco de salud para el año 2000.

Habiendo procedido en el año 2001 a la cobertura de 500 puestos de plantilla y 118 de contratación temporal, en el año 2002 se procede a la aprobación y cobertura de los 200 puestos restantes.

### • Normalización Lingüística

El plan de normalización del uso del Euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud se inscribe dentro del proceso general de normalización de la Administración Vasca, impulsado por una reglamentación jurídica específica, expresión de la voluntad de los ciudadanos vascos, cuya concreción legal es la Ley 10/1982, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

La Ley 8/1997, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en su artículo 28, norma común quinta, dispone que "De conformidad con lo dispuesto en la normativa reguladora de la normalización del uso del euskera en la Administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, el ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud establecerá un plan especial conforme a las directrices que disponga el órgano competente de la Comunidad Autónoma en materia de política lingüística, al objeto de determinar los objetivos lingüísticos de aplicación al personal del ente, así como las medidas a adoptar tendentes a su efectivo cumplimiento".

En aplicación de lo dispuesto en la normativa, Osakidetza durante el ejercicio 2002, en base al borrador de Decreto por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en Osakidetza presentado a las organizaciones sindicales con representación en Mesa Sectorial de Sanidad, y una vez finalizada la fase de alegaciones, ha elaborado un nuevo documento el cual se encuentra actualmente en fase de tramitación administrativa.

### • Oferta Pública de Empleo

Osakidetzako pertsonalaren lan-baldintzak arautzen dituen akordioak ondoko eranskina du: "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Negoziazioko Mahai Orokorraren akordioa, 35 orduko lanaldiari buruz eta enpleguaren gaineko zenbait neurri buruz". Eranskin honetan Akordioa sektorez sektore nola garatu behar den zehazten da enpleguari dagokionez zenbait ataletan, horien artean Lan-eskaintza Publikoa jasotzen da. Lan-eskaintza Publikoari buruzko atalean bertan xedatzen denez, Osakidetzak Lan-eskaintza Publikoko 2.800 lanpostu betetzeko deialdia egiteko konpromisoa hartzen du; horietatik 1.600 lehenengo lekualdatze-lehiaketa bukatutakoan eskainiko dira.

Aurreikuspen hori bete eta garatzeko, Osakidetzako Administrazio-kontseiluak, 2002ko martxoaren 26an hartu zuen Akordioa, 2002ko apirilaren 17an aldatuko duena, eta, horrela, Osakidetzak Ente Publikoko 2002 urterako Lan-eskaintza Publikoa onartu zuen.

Lan-eskaintza Publikoa onartu ondoren, 2002ko maiatza eta ekainean abiatu diren 112 hautaketa-prozeduren deialdiak argitaratu dira. Hautaketa-probak irailaren eta azaroaren bitartean egitea aurreikusi da.

#### • **Negoziazio kolektiboa**

Atal honetan, Jaurlartzak ezar ditzakeen jarraibideak hartuko dira kontuan, bera baita bere eragin-esparruaren pean dauden alor instituzio, erakunde autonomo, enpresa eta ente publiko guztien erakunde koordinatzailea.

Gure alorreko arazo espezifikoak diren aldetik, ondokoek arreta berezia eskatzen digute:

#### **Etengabeko Atentzioaren erregulazioa**

